

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1994-95

① ELHEKETA: Aste huntako solas-gaiak.

- 1. Zertako arrangura zen Luis?
- 2. Zer era baki zuen Eñaut i-thumebo eg zerbait?
- 3. Norekin eta nola atseaman zuen Oseba?

② DONADOA 6

Luis arranguraten hasi zen. Afal ondoan otto-
ren biderat abiatu zen. Gaua beltza zen eta etzen
errex bi gizonak elgar kausitzea bortu zoko heetan.
Zerbait azantz hautemaiten zuelarik, Luis gelditzen
zen eta beha egoiten. Bethi ustc zuen Eñaut hurbil-
tzen ari zitzaiola. Eta orduan oihu bat egiten zuen.
Nehor etzen ihardesteko. Abere zombait zitaken, hor
gaindi.

Luis harrokarat heldu zen. Nehor etzen ageri.
Artzain gaztea arranguraten hasi zen, zinez.

Orduan Beraineko etxolan sartu zen eta argi bat
galdatau. Jakcs ere atera zen, bertze artzain gazte bat.

Biak harrokarat buruz itzuli ziren berriz. Jakcs
etzuon ikusi Eñaut egun hartan. Huntxeari buruz sar-
tua zen etxolan, igandca bere herrian pasaturik.

Luisek konprenitu zituen artzain zaharrak ukan
gogotack ardi hil hartaz.

Argiak etzuen barna zilatzen gau beltza. Hamar
urhatsetan doi-doia.

Harroka inguruak ikertu zituzten. Deus, Nehor.

Ixtan bat gelditu ziren, heian deus hautemanen
zutenetz.

Heien urhatsak gelditu ondoan, ixiltasun csoa
zagon bortuan.

Luisck erakutsi nahi ukan zuen Jakcs nun sar-
ua zen haren ardia. Zilokaren ondorat hurbildu ziren.
Jakcs argia eman zuen bertze mutikoari.

Han ikusi zuten Eñaut, ardiaren gainerat eroria,
hila.

Luisen begitartea ilundu zen. Orai konprenitzen
zuen haren crrana etzuela sinhetsi artzain zaharrak
eta bere begiez nahi ukan zucla ikusi ardia zinez
ziloan zela eta betikotz.

Ardien amodioak hil zuen Eñaut, martirak Jain-
koaren amodioarentzat bezala, ama bat bere haur-
rentzat xahutzen den bezala.

③ ADITZ IKASKUNTZA.

- 31. Ari zitzaiola 32. zombait zitaken
- 33. ixiltasun osoa zagon 34. nagoke, hagoke eta
- 35. nagon, hagon etc.

31. IZAN - Régime Indirect. Indic. Imparfait

Hura zen = il était
Hura (lui) • Zitzaitan = il m'était
Zitzaizun = il vous était
Zitzaiion = il lui était
Zitzaizun = il nous était
Zitzaizun = il vous était
Zitzaiien = il leur était

Zu zinen = vous étiez
Zu (vous) Zitzaiyhitan = vous m'étiez
Zitzaiyktion = vous lui étiez
Zitzaiyhyzun = vous nous étiez
Zitzaiyktion = vous leur étiez

32. IZAN - Potentiel Imparfait

Ni izan ninteken = je pouvais être
Hi -" - hinteken = tu pouvais être
Zu -" - zintezken = vous pouviez être
Hura -" - zitezken (zitaken) = il pouvait être
Gu -" - gintezken = nous pouvions être
Zuek -" - zintezketen = vous pouviez être
Heik -" - zitezken = ils pouvaient être

EGON - Indicatif Présent.

Ni nago (je reste) Gu gaude (nous restons)
Hi hago Zuek zaudzete
Zu gaude Heik daude etc.
Hura dago etc